



LAN EREMUKO

SEXU-INDARKERIARI

**EZ**

**A 25**

EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIA  
DESAGERRARAZTEKO EGUNA

  
Prevención

● **Sexu-askatasunaren berme integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoaren** bidez, sexu-askatasunerako eskubidearen berme eta babes osoa bultzatzeko eta sexu-indarkeria guztiak desagerrarazteko helburua ezarri zen.

● Lege organiko honen aplikazio-eremuak sexu-indarkeriak hartzen ditu barne, hau da, onartu gabeko edo edozein eremu publiko edo pribatutan, eremu digitalean barne, sexu-bizitzaren garapen askea baldintzatzen duen sexu-izaerako edozein ekintza.

## SEXU-INDARKERIA

Onartu gabeko sexu-ekintzak dira, eta sexu-bizitzaren garapen askea baldintzatzen dute edozein esparrutan, pribatuan zein publikoan, sexu-erasoa, sexu-jazarpena eta besteren prostituzioaren esplotazioa barne hartuta. Eta sexu-indarkerien biktimak genero-indarkeriaren edo terrorismoaren biktimekin parekatzen ditu.

## DEFINIZIOAK

## SEXU-ERASOA

(sexu-abusua ez)

Sexu-askatasunaren aurka **beste pertsonaren baimenik gabe egiten diren ekintza guztiak** sexu-erasotzat hartzen dira.

## BIKTIMEN DEFENTSA

Lege organiko honek **prozedura judizialean defentsa jasotzeko lege-laguntza bermatzen du**, baita aholkularitza ere.

## EMPRESEN BETEBEHARRA

10/2022 Lege Organikoak ezartzen duenez, **enpresek laneko sexu-askatasunaren eta osotasun moralaren aurkako delituak eta bestelako jokabideak saihesteko lan-baldintzak sustatu behar dituzte**, sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena bereziki azpimarratuz, Emakumeen eta Gizonen berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 48. artikuluan aurreikusitako baldintzetan, eremu digitalean egindakoak barne.

A25

EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIA  
DESAGERRARAZTEKO EGUNA

IMQ  
Prevención

## EMPRESEN BETEBEHARRA

Lege Organikoaren 12. artikulua araberan, betebeharrak ezartzen dira:

- > **Prozedura espezifikoak arbitratzea**, halakoak prebenitzeko eta jokabide horien biktime izan direnek egin ditzaketen salaketak edo erreklamazioak bideratzeko, eremu digitalean pairatutakoak barne, bereziki.
- > **Sentsibilizazioa sustatzea** eta bere zerbitzura dauden langile guztiei sexu-indarkerien aurkako babes osoa emateko **formakuntza** eskaintzea.
- > **Langileen ordezkariekin negoziatuta**, jardunbide egokien kodeak, informazio-kanpainak, jarduera-protokoloak eta prestakuntza-ekintzak egin eta zabaldu behar dira.

Ekintza horiek enpresarekin edozein lan-harreman duten pertsona guztiei zuzendu behar zaizkie, baita bekadunei eta boluntarioei ere.

Egitura eta funtzionamendu-arauak lege organiko honetan ezarritakora egokitzen dituzten enpresek honako bereizgarri hau izango dute: "Genero-indarkeriarik gabeko gizarte baten aldeko enpresak".

Adierazitako ekintza horien edo enpresako arduradunek proposatutako beste batzuen ondorioz, neurrien plan bat adostuko da, enpresak planifikatu beharko duena, eta Arriskuen Hasierako Ebaluazioaren hurrengo berrikuspenean ezartzen den edukiaren parte izango da, 39/1997 Errege Dekretuaren 6. artikulua araberan.



**A25** EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIA  
DESAGERRARAZTEKO EGUNA

**IMQ**  
Prevención